

Euskal Autonomia Erkidegoko milioi erdi etxek baino gehiagok dute Interneteko sarbidea 2012an

Biztanleria erabiltzaileen % 32k baino gehiagok Sarearen bidez erosten du

Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urteko eta hortik gorako Interneteko erabiltzaileak 1.089.200 lagun ziren 2012ko lehen hiruhilekoan, adin-tarte horretako euskal biztanleriaren % 57,6, Eustatek landuriko datuen arabera. Ehuneko hori portzentajezko 0,8 puntuan hazi da iazko denboraldi berarekin alderatuta.

Lurralde historikoen arabera, Araban hazi da gehien erabiltzaileen ehunekoa (portzentajezko 3,0 puntu) iazko denboraldi berarekin, eta bigarren postua lortu du Euskal Autonomia Erkidegoan, Interneteko erabiltzaileen % 58,5arekin. Gipuzkoak, 1,9 puntuko hazkundearekin, erabiltzaileen % 60,7 bildu du aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan, eta lehenengo postua lortu du. Bizkaiak, bestalde, 0,5 portzentajezko puntuko beherakada txikia izan du, eta % 55,5ean kalkulatu da 15 urteko eta hortik gorako Interneteko erabiltzaileen ehunekoa, eta hirugarren postuan dago orain.

Adina kontuan izanda, nabarmentzekoa da erabiltzaileek izandako gorakada 45-54 urteko tartean, portzentajezko 5,1 puntuko hazkundearekin, ondoren 65 urtekoak eta hortik gorakoak daudela, puntu bateko igoerarekin 2011ko lehen hiruhilekoarekin. Haatik, beherakada txikiak daude Interneten erabileran gazteenen artean.

Genero-hesiak bere horretan irauten du Interneteko erabiltzaileen artean

Genero-hesia deiturikoa, 2011. urtean portzentajezko 8 puntuan zegoena, 7,9 puntuan mantentzen da 2012ko lehen hiruhilekoan. Horrela, 15 urteko eta hortik gorako biztanleriari dagokionez, Interneteko gizonen erabiltzaileak gizonen biztanleriaren % 61,7 dira, eta emakumezko erabiltzaileak, aldiz, emakumezkoen biztanleriaren % 53,8 dira. Aurtengo Interneteko erabiltzaileen guztizkoa hartuta, % 51,9 gizonak dira eta % 48,1 emakumeak.


Jarduerari dagokionez, biztanleria ikaslearen % 97,9 da Interneteko erabiltzaile, biztanleria landunaren artean % 78 eta pertsona ez-aktiboen eta langabeen artean % 28,7. 2011. urtearekin alderatuta izandako hazkunde handiena biztanleria ez-aktibo eta langabeen artean izan da (portzentajezko 2,1 puntu); Interneteko erabiltzaile landunen kasuan hazkunde hori 1,7 puntukoa izan da; azkenik, Interneteko erabiltzaile den biztanleria landunaren kolektiboa 0,9 puntuan hazi da.

Internetera saltzeko leku nagusia norberaren etxea da oraindik, eta portzentajezko 1,8 puntuan kalkulaturiko konexioen igoera izan da, eta hori horrela, erabiltzaileen % 92,6 bere etxetik konektatzen da. Ikastetxeetatik eta beste zenbait lekutatik (ziberkafea, hotelak, aisiaguneak...) Internetera eginiko sarrerek hazkunde txikiak izan dituzte, 0,8 eta 1,2 puntuko igoerarekin, hurrenez hurren. Dena den, lantokitik egindako sarrerak, aldiz, 1,6 puntu jaitsi dira iazko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Produktuak edo zerbitzuak sarearen bidez erosten dituzten internauten ehunekoa gehitu egin da

Internet bidez erosi duen Interneteko erabiltzaileen ehunekoa portzentajezko 1,6 puntuko hazkundera izan du 2012an 2011rekin alderatuz gero. 2012ko lehen hiruhilekoan Interneteko erabiltzaileen % 32,0k erosi du Sarearen bidez, eta 2011n, aldiz, internauten % 30,4k erosi zuen.

1. grafikoa. 15 urte eta gehiagoko biztanleen bilakaera, etxean IKT hornikuntzetarako sarbidearen arabera, hiruhilekoei jarraiki. 1999-2012. %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei

IKT ekipamenduen presentzia gehitzen ari da euskal etxeetan

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako ekipamenduen presentzia zabaltzen ari da euskal etxeetan. 2012ko lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeen % 62,3k ordenagailua dauka, hau da, 2011ko lehen hiruhilekoan baino portzentajezko 0,8 puntu gehiago. 15 urteko eta hortik gorako biztanleria hartuz gero % 71,8 da.

Interneterako sarbideari dagokionez, familien milioi erdik baino gehiagok, % 58,4k, dauka bere etxebizitzan zerbitzu hori, eta, hortaz, 18.100 familia berri (1,4 puntu) gehitu dira Interneterako konexiora 2011ko denboraldi berarekin alderatuta. Era berean, sarerako sarbidea duen 15 urteko eta hortik gorako biztanleriak 24.900 pertsonako gehikuntza (1,2 puntu) izan du 2011ko lehen hiruhilekotik hona, % 66,9ra iritsita.

Bestalde, etxeen % 91,4tan ageri da telefono mugikorra. 15 urteko eta hortik gorako biztanleriari gagozkiola, % 94,9ra iristen da telefono mugikorra duen biztanleria, hots, 15.600 pertsonako hazkundera.

1. koadroa. Biztanleriaren IKT ekipamenduak eta Interneten erabiltzaileak

	2012. URTEA		2011. urtearekiko aldaketa	
	Milakoak	%	Milakoak	* ALD., % P.
ETXEKO HORNIKUNTZAK				
FAMILIAK	856,3	100,0		
Ordenagailu pertsonala	541,3	63,2	13,5	0,8
Telefono mugikorra	782,3	91,4	19,9	1,3
Internet	500,2	58,4	18,1	1,4
Seme-alabadunak	352,6	81,6	4,4	0,4
Bikotearekin bakarrik	83,4	42,9	10,8	5,0
Bakarrik bizi diren banakoak	64,2	27,9	2,9	0,8
15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.889,9	100,0		
Ordenagailu pertsonala	1.356,2	71,8	13,0	0,6
Internet	1.264,5	66,9	24,9	1,2
Ordainpeko telebista	297,5	15,7	21,8	1,1
Lurreko telebista digitala	1.606,5	85	-160,6	-8,7
DVD	1.347,6	71,3	-82,3	-4,5
Telefono mugikorra	1.793,5	94,9	15,6	0,6
INTERNET ERABILTZAILEAK	1.089,2	57,6	17,9	0,8
Gizonak	565,8	61,7	7,0	0,8
Emakumeak	523,4	53,8	10,9	0,9
Araba / Álava	163,9	58,5	9,4	3,0
Bizkaia	562,6	55,5	-3,3	-0,5
Gipuzkoa	362,7	60,7	11,8	1,9
15-24 urte	183,3	96,0	4,8	-0,3
25-34 urte	243,0	85,1	-21,7	-0,3
35-44 urte	292,1	78,6	11,5	-0,4
45-54 urte	228,8	67,4	17,6	5,1
55-64 urte	105,2	38,2	1,0	0,3
65 urte edo gehiago	36,9	8,6	4,8	1,0
Ikasten	151,7	97,9	4,7	0,9
Lanean	695,9	78,0	-14,9	1,7
Langabezia edo jarduera-ezean	241,6	28,7	28,1	2,1
Etiketarik sartzen dira	1.008,6	92,6	35,8	1,8
Lantokitik sartzen dira	412,4	37,9	-10,5	-1,6
Ikastetxetik sartzen dira	111,1	10,2	10,2	0,8
Beste leku batetik sartzen dira	68,9	6,3	14,0	1,2
Euskaraz nabigatzen dute	227,7	20,9	0,9	-0,3
Gaztelaniaz nabigatzen dute	1.080,0	99,2	18,6	0,1
Ingelesez nabigatzen dute	214,0	19,6	7,1	0,3
Internet bidez erosi du	348,7	32,0	23,1	1,6
Azken konexioaren batez besteko iraupena	46,3		0,3	

* ALD., % P. = Aldea, ehuneko-puntutan

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tel.: +34-945-01 75 31 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei- prentsa ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei- datu bankua](#)